

MERKATU SEGMENTAZIOA


Bezeroak dira edozein negozio ereduren motorra, beraz, gu horretan zentratuko gara. Zerbitzua mundu guztiaren eskura egon arren, zehazki ondoren aipatuko ditugun ezaugarriak dituzten pertsonetan zentratuko gara:

Hasteko, gure negozioa negozio euskaldun bat denez eta hasieran muga errealista bat nahita ez jartzea beharrezkoa denez, jende euskaldunean edo Euskal Herriko biztanleetan zentratuko gara. Bestalde, sexologia mundura hurbiltzen hasten den jendea orokorrean jende gaztea izaten da, esperientziarik edo informaziorik gabekoa. Horregatik, pentsatuta daukagun adin tarte 15-23 urte bitartekoa izango da. Hortaz aparte, sexu eta genero ezberdin guztientzako moldatuta dago. Azkenik, eskainiko dugun zerbitzua webgune bat denez, derrigorrezkoa izango da internet zerbitzua izatea hura kontsumitu ahal izateko.


Hala ere, nabarmendu nahi dugu webgune publikoa izanda, ez dizkiogula inori ateak itxiko, guztiaren gainera, gure helburua sexuari buruzko informazioa normalizatzea eta mundu guztiaren eskura egotea delako.

Bestalde, etorkizuneko bezeroen aurreikuspen bat egiteko, gure ikastetxeko 4 mailatan (15-18 adin bitartekoak) galdetegi bat pasatu dugu eta jasotako datuak grafikoetan bildu ditugu. Grafiko horietan garbi ikus dezakegu sexu-informazio eskasia eta webgunearen interesa.


ZALANTZAK DITUZU SEXOLOGIAN?




WEBGUNE BATEAN SARTUKO ZINATEKE




INFORMAZIO GARRANTZITSUA DA?



SEXOLOGIARI BURUZK ADINA INFORMAZIOA?



ESKOLAN LANTZEN DA?



Aurreko grafikoekin ateratako ondorioak hauek izan dira:

Gure ikastetxeko gazteen ia %65 ikaslek, erdiak baino gehiagok sexologian zalantzak dituzte, eta horrekin lotuta, %58 gutxi gora behera adina informazio ez dutelakoan daude. Beste alde batetik, ia ikasle guzietan (%96,8) informazioa edukitzea garrantzitsua dela uste dute eta %74,2k diote eskolan ez dela lantzen, beraz argi dago hain garrantzitsua den informazio hura bakoitzak bere aldetik lortzea derrigortuta dagoela. Bukatzeko, galdetegia bete duten %70 baino gehiago webgunean sartuko lirateke. Gure bezero potentzialaren ezaugarri guztiak betetzen dituzten ikasleek erantzundako galdetegia izanda (sexu guztietakoak, 15-23 adin tartearen barruan kokatzen direnak eta euskaldunak edo Euskal Herriko biztanleak) hauen artean interesa badagoela argi gelditu zaigu.